

FITXA: 205 - GIPUZKOA - Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia: 2030 Agendaren garapen jasagarriko helburuak (GJH) lortzen lagunduko duten jarduketak gauzatzeko udalei zuzendutakoak.

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietako udal guztiek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/03/04
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko otsailaren 17eko erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/04/c2601271.pdf>

Eragin eremuak: Ingurumena

Zenbatekoa: 230.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/05

Aurkezteko azken eguna: 2026/04/06

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Aldakorra, egindako jardueren arabera.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez dira dirulaguntza deialdi honetan sartuko kostu lagungarria 3.000 euro baino txikiagoa daukaten jarduerak, salbu eta dirulaguntzaren eskatzailea 2.000 biztanletik beherako udalerrri bat bada.

Laburpena

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei diru-laguntzak ematea Garapen Iraunkorreko Helburuen (aurrerantzean, GJH) ingurumen-helburuak lortzen lagunduko duten azterketak, planak eta proiektuak egiteko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. oinarri arautzailearen 2. atalean diruz lagundu daitezkeen jarduketan azalpen zehatz eta zehaztua ageri da:

- a) Garapen jasangarrirako estrategiak eta planak egitea.
- b) Garapen Jasangarrirako Helburuen ingurumen-helmugak diren gaiak betetzeko aurrerapausoak sustatzen dituzten azterlanak.

Ez dira diruz lagunduko GJHen ingurumen-helburuak lortzen lagundu arren, Departamentu honen dirulaguntza-lerro espezifiko bat duten jarduerak, hala nola honako hauek:

- Klima- eta energia-planak eta/edo energia-jarduketako planak.
- Energia-eraginkortasunaren, energia berriztagarrien sustapenaren eta energia-pobrezia murriztearen arloko jarduketak.
- Sakabanatutako zaborra biltzea eta/edo ibaiak garbitzea helburu duten ekintzak.
- Hondakinen prebentzioaren, berrerabilpenaren eta birziklapenaren arloko esku-hartzeak eta gaiari buruzko sentsibilizazio-kanpainak.

Honako jarduera hauek ere ez dira diruz lagunduko:

- Mugikortasun jasangarriaren diagnostikoak eta planak.
- Diruz lagun daitezkeen azterlan edo plangintza-prozesu baten parte ez diren herritarren partaidetza-prozesuak.
- Saneamendu-proiektuak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza ordaintzeko, laguntzaren oinarri den proiektua egin beharko da, eta ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdiaren urteko urriaren 31ra arte, hurrengo apartatuan zehazten diren egiaztagiria aurkeztu ondoren.